

1280 ARIMA

Jim Thompson




erdal literatura beltza


ELKAR

Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




adats ile luzea, multzoa	Han gelditu nintzen, ile adatsa burkoetan zabaldua nola zeukan begira...	177
ahal ea (Desiozko hitza: Ojalá)	—Erne ibiltzen ahal haiz, Nick Corey. Badakik bestela zer pasatuko zaian...	13
ahalena adinakoa	Apustu egingo nitek aritu haizela, iruzurti alaena, ez besteren ahalena .	243
ahapeka isilean, belarrira	Rosek atximurka esnatu ninduen, zeharo izaturik eta ahapeka mintzatuz.	129
ahoa bete hortz zeharo harriturik	Tom ahoa bete hortz gelditu zen...	77
ahuspez ahoz behera	Uda zenez, ez zeukan kamisoirik soinean eta maindireak botata agerian zegoen. Ez zitzaion aurpegirik ikusten, ahuspez baitzegoen.	10
aihen kimua, adar luzea	...beherago zintzilik dauden aihenetan lan egin behar.	241
aiherkunde gorrotoa, ezinikusia, hegigoa	Ordura arte inorenganako amorrurik, aiherkunde zipitzik ez nuela sekula sentitu...	221
aintziratsu paduratsua	...eskualde aintziratsuan euri asko egin ohi du.	52
aise erraz	Hortik arrantzara joan zarela aise atera daiteke.	180
aixkiria adiskidea (adierazkorra)	Baina biak elkarrekin zeudenean, aixkiria!	22
alaena halakoa	Apustu egingo nitek aritu haizela, iruzurti alaena , ez besteren ahalena.	243
alderoka zabuka, balantzaka	Myrarengana abiatu zen alderoka ...	13
alproja arlotea, alferra	Alproja bat haiz, eta alprojekin ibiltzea ez duk itxura onekoa.	53
alukeria lelokeria	...paraje hartan bertan inork haiekin harrapatzea ere, alukeria ederra.	139
apika beharbada, agian	Tximista pare bat ere ikusi nuen eta, bueno, apika oinaztarriak...	126
arpa jo txantxatan, bromatan	...irribarre egin, arpa jotzen ibili eta beste aldera begiratzeaz gain...	16
arrabita bibolina	... arrabita musika hura eta perfume hura nora joanak ote ziren ezin asmatu.	173
arramaskatu zarpioa kendu, eratzi	...horma jo zuen, konturatu baino lehen zati bat ederki arramaskatuz .	57
arreguratsu kexatia	Beharbada ez gatoz gauza guztietan bat, baina tira, ez nauzu arreguratsua ...	205
asaldatu aztoratu, zurtu	Pixka bat asaldatu bezala egin zen.	17
atxur mozkorra, hordia	Kantitate pollit bat edaten bazuen (...) kristoren atxurra harrapatzen zuen.	69
aztoratu artega jarri, asaldatu, zurtu	Taiuzko otordu bat egiteko aztoratuegia nengoen...	15
babo ergela	Babo arraio bat haizelako.	11
barauts adurra, txistua	Lennie bere barautsak irenstean ito beharrean jarri zen...	235




begi gerrikoaren lokarria, ixtailua	Ia-ia gerrikoaren begiari eman nion musu, aizu.	193
begitarate aurpegia	—O! —esan zuen begitarate ilunduz...	114
bekoz beko aurrez aurre	Barnesek buruari eragin zion eta bekoz beko begiratzen zidan.	207
betizu ikaratia, zapuztia	...bere itzalaz ere ikaratuko zen beldurti eta betizutzat baitzeukan.	130
bil-bil eginda kiribilduta, batubatu eginda	...nire besoetan bil-bil eginda jarri zen.	189
birao madarikazioa, hitz gorria	Eta hura birao hotsa!	28
danbateko kolpe zaratsua	Barrura sartu eta danbatekoz itxi zuen atea...	88
dandarrazka arrastaka, tatarrez	...Myra zaldiaren uhalei eutsiz, Lennieren burua atzera eta aurrera dandarrazka .	229
dardarizo ikara, dardara	...eta dardarizo alu batek gorputza astintzen zion.	149
egarberatu egarritua, edanguratsua	...pentsalari sakona (...) ez nekiela (...) baina pensalari egarberatua baietz behintzat.	114
egitada ekintza	...eta hor nabil ni batetik bestera egitada onak eginez.	211
egurtu jipoia, astinaldia	Eta horregatik beltzari heldu eta egurtu bat ematen ari zen.	75
entzungor ezentzunarena	...haren deiari entzungor egin nion.	99
eragozti galarazi, ez utzi, debekatu	...sua ematea eragozteko zergatik ez hintzen han.	181
erlats latza, zakarra	Rose begira-begira gelditu zitzaion (...) ahotsa murmurio erlats eta ahula bihurturik.	234
erretxindu amorratu, "pikatu"	...hirea bezalako andre erretxindu baten zauriak...	170
errita eman haserre egin, agirika egin	Aurreregi joateagatik errita emateko zure era besterik ez da.	114
erronka desafioa, harrokeria	...ez didak esango erronkan eta desafioka hastera ausartzen direnik...	40
erronkan ibili desafioka ibili, besteak	Badakit zure lagun den Ken Lacey sheriffa herriko kaleetan zehar Moose eta Curlyrekikoak eginak zituela, eta erronkan ibili zela, hil zituela...	206
eskutik abantailan	Bera zen eskutik , eta bazekien gauzak okertzen zirenean nik atzera egiten nuela.	15
ezdeus ezgauza, inutila	Nire denboran ikusi dudan gauzarik ezdeusena haiz hi.	11
ezikusiarena egin ez ikustearen itxurak egin	Berak ere ikusi ninduela seguru nekien, baina ezikusiarena egin zuen.	19
ezta hurrik eman ezta pentsatu ere, bai zera!	Baina hori ez zen dena, aditzen? Ezta hurrik eman ere.	221
fidakaitz susmakorra, aierukorra	...Rose eta bioi begiratu fidakaitza eginez...	166
ganbela aska	Kriseilua zegoen hondar ontzi baten gainean argi dardartia ganbela iladan zabalduz.	146




gandor lotsagabekeria, ausardia	Aspaldian ez nion hain zakar hitz egin eta nolabait gandorra jaitsi zitzaion, horratik.	14
garaño ortuarien zurtoin luzea	...inozoek garañoek bezain luzea dutela esan zidatek.	65
gatzako kolpea, musturrekoa	Ia gatzako ederra hartu nuen goizeko terrala zela medio.	15
gerizatu babestu	Lenniek atzera egin zuen, marruka eta besoez gerizatuz .	236
gubernatu zaindu, jagon	...andrea zerriak gubernatzeko erabili zuela...	198
gonbitalarri botalarria, nazka	Ikutze hutsak gonbitalarria ematen dit.	106
hasperen arnasbehera sakona, suspiria	Hasperen sakon bat jalgi zitzaion.	64
hatz eginago zenbat eta gehiago hazka egin	...beharbada, ez nuen eskasiarik sufritzen, baina badakizue nola izaten diren gauza horiek. Hatz eginago eta gurago. Zenbat eta gehiago jan, gehiago nahi.	10
hazkure hazka egiteko gogoia	...han nengoen ni zutik, begirik apartatu gabe, bero-bero jartzen, hazkurea ezin aguantatuz, eta azkenean alkandoraren botoiak askatzen hasi nintzen.	10
hitzetik hortzera bat-batean, pentsatu gabe	...erantzun zidan hitzetik hortzera ...	124
hozkatu kosk egin	Rosek ezpaina hozkatu beharra izan zuen barreari eusteko.	165
hozki zirrara bizia, horzdura	...bere iritziak hozkia emateko moduan azalduz.	105
imintzio keinua, mugimendu nabarmena	...zurikeriazko imintzioak eginez...	113
inude umezaina, umeak hazten dituen	...beraz, inude beltz bat jarri zidaten."	35
iruzurti tranpalaria, engainatzailea	Apustu egingo nitek aritu haizela, iruzurti alahena, ez besteren ahalena.	243
iseka trufa, burla	...Jainkoari bere etxeko atarian bertan inork isekarik egin ez diezaion...	195
itsumustuan ustekabea	Bart itsumustuan nola etorri hintzen ari ninduan pentsatzen.	69
ixtukazo txistua, txua, ttua	... ixtukazoa balitz bezala bota zidan hitz zaparrada hau.	11
izipu buztana	Makarrek izipua hanka artean duala aurretik bidali hauteneko hotsa zabaltzen duk...	40
jalgi irten, atera	Hasperen sakon bat jalgi zitzaion.	64
jendaila jende doilorra, dongea, jendilaje	... jendailarik ziztrinenari berari ere nazka emango lioketen gauzak...	200
kakalardo kakarraldoa, piztia, nazkagarria	Kakalardo malapartatu batzuk ziren...	52
kakazu kakatia, doilorra	Eta segun eta nondik begiratzen dioan (...) popatik hartzeko ere balio ez duen kakazuena duk.	254
kalexa gurdi mota bat	...nonnahi ikus zitezkeen (...) kalexa apaindu liluragarriak.	31
kankailu gizaki altudorpea / pepeleroa	— Kankailu alaena —esan zidan—. Ezinbesteko duen zerbait Lennie gizarajoari leporatzen hasiko ote haiz orain?	13




kargu hartu erantzukizuna eskatu	Zein ostia haiz hi niri kargu hartzen hasteko?	195
karramisto garrasia	...batek atera ditzakeen karramistorik handienak atera izan ditut...	216
katramilaturik nahasturik, arazoetan	...ez diat sekula lagun zaharrik katramilaturik utzi...	26
kazkabar jasada txingorrada, harri jasa	...zekorrek kazkabar jasada ari duenean ateratzen dituen ainako marruak atera zituen.	12
kikara kirtendun katilua, taza	Eta hark botatako zilarrezko kikarak ematen zidan zartakoaz...	48
kiribildu okertu, bihurtu	...bere odol eta erraiek egindako putzuan kiribilduz .	86
korde konortea	...laguntza eske bezala (...) edo kordea galtzeko zorian balego bezala.	196
kuluska lotaldi laburra	Lennie kuluskadaka ari zen silan eseri eta begiak itxita.	165
kuxkuxeatu zelatatu, ikusmiratu	...ez direla inguruan inola ere kuxkuxeatzen ibiliko...	61
laineza hartu errespetua galdu	...makarra batek Keni laineza hartuko balio.	44
laineztuta harrotuta, matxinatuta	Laineztuta zebilzkidak.	39
lanteri zeregina	Lanteri hauek gehienetan banatuak egoten dira.	211
lasterbide laburbidea, bide zidorra	Berriro herri alderantz hartu nuen lasterbidetik ...	170
lausengari losintxaria (adulador)	...ez zen batere erretratu lausengaria .	134
lausengu gezurrezko laudorioa, losintxa	Hauen ondoan aurrekoak lausenguak ziren.	227
lerde adurra	Han sartu zen (...) lerde jarioa bazterretan zabalduz.	13
lerdekatu ttuz betea, txistuarekin nahastua	...Buckek tabako lerdekatua ixtu-ontzira bota eta puroari puska bat kendu zion mastikatzeke...	34
lohikeria zikinkeria	Nahita ere ezin izango nioke lohikeriarik leporatu...	82
maindire izara	Uda zenez, ez zeukan kamisoirik soinean eta maindireak botata agerian zegoen. Ez zitzaion aurpegirik ikusten, ahuspez baitzegoen.	10
maiseatu marmar aritu, kritikatu	...jendea maiseatzen nola ari zen esan nionean...	185
makina bat asko, ugari	Baina oso ederki ari ginen pasatzen, nik pentsatu bezala eta elkarri esateko makina bat gauza bagenuen.	47
malkar pendizeko bidexka hondatua	...hondorik gabeko malkarrean behera nindoala iruditzen zitzaidan...	187
maripurtzil zatarra, urdanga	Maripurtzil horri musu ematen diodan bakoitzean ahoa garbitzeko gogoa jartzen zaidak.	124
marizikin baldresa, zikina	...alde guztietatik begiratuta zuen marizikin itxura...	10
mizto suge mihia	Mizto pozoidun putasemea! Niri kargu hartzen hasiko haiz, egindakoaren ondoren!	240



moila kaia	...etxe aurrean zegoen moila gainean etzanda.	16
mokadu ahamena, janari arina	Irten baino lehen mokadu bat prestatu zioat...	149
norbaitekikoak egin norbait akabatu	Badakit (...) Ken Lacey sheriffa herriko kaleetan zehar Moose eta Curlyre-kikoak eginak zituela, eta erronkan ibili zela, hil zituela adierazi nahirik.	206
nozitu jasan, sufritu	...letorkiokeena nozitu behar din.	175
ñir-ñir dardar, kliskatzen hasi	Samen betazala ñir-ñir hasi zen.	197
ohi izandakoa (ex)	Izan ere, sheriff ohiaren andrea izateko (...) gogoia zeukan...	185
oldar erasoa, indarra	...muturreko hura jende askorentzat oldar eta bortxakeria izan daiteke...	184
onddo-kapela perretxiko itxurakoa	Traje zuri-beltz klasiko bat zeukan soinean, botinak eta polainak hanketan eta onddo-kapela horietako bat.	17
opo orpoa	...morroiak han zetozen atzean (...) niri opoak oinpean harrapatuz...	120
orbandu orbanez edo lohiunez bete	Han ziren aurpegi zurbilak, zizareek zuri-zuri bihurtuak eta eskorbutoak orbanduak .	232
orga gurditxoa (<i>carrito</i>)	Berarekin igon nintzen haren orga lasterrera.	179
ostruka hegazti korrikaria (avestruz)	...burua ttente, kapelako ostruka luma aidean dantzan zeramalarik.	22
otzan esaneakoa, mantsoa	Hain bigun eta otzana ez balitz...	101
oxkatu lapurtu, ostu (sisar)	...Rosek primak ordaintzen segitu zuen, handik eta hemendik oxkatzen zionetik.	159
oztropoz egin estropezu egin, behaztopatu	Oztropoz egin eta ia kristorena hartu nuen.	52
pello kaikua, tontolapikoa	... pello itxurarik ez neukala garbi ikusi nuen arte.	9
perraka zaparradaka	...euria perraka hasteko zorian dagoela eta...	149
pertika ardatza	Guardabarrosaren kontra jarriarik nengoen pertikak askatzeko...	127
pikortu garandu, aletu	...zartaikada kruspet arto pikortua ...	8
pixagaleak egon txizalari izan	Kontua zera zen, pixagaleak nengoela . Baina ez nekien seguru barrura sartzeko nire txanda zen ala ez.	17
porrot egin hondoa jota, animo barik	Ken hurrengo goizean azaldu zen (...) zuri-zuri eta porrot eginda .	63
porru eginda sats eginda, leher eginda	...eta gainera porru eginda nengoela uste dut.	146
potrozorri zitala, jasanezina	— Ez gezurretan hasi nirekin, potrozorri inozo alahena...	225
prestua zintzoa	...andre batek gizon prestua zirkunstanzia haietan har zezakeen bezain ondo...	63
sasiko legezko ez den umea	Azkenean sasiko zikin horretaz libratu nauk.	90



sastraka sasitza nahasia	Sasi eta sastraketan barrena sartu dira gero...	182
sheriffo sheriff ardura / erakundea	Nik sheriffgoan bakarrik nekien. Egin nezakeen gauza bakarra zen.	16
sona entzutea, ospea	Batek sona lortu nahi duela eta erronkan hasten bada...	175
total eginak leher eginda, sats eginda	Zalantzarik gabe ni iristerako total eginak izango ziren.	52
tramankulu aparailua, trastea	...ez daukagu azterketa zientifiko eta ikerketa sakonik egiteko tramankulurik .	145
trenpuan entranpaturik (?)	Ez, ez negon trenpuan ...	14
trikimailu azpikeria, maltzurkeria, tranpa	Egia esateko berak sortua zela trikimailu hura.	169
ttu egin txistua bota	...tabakoa mastikatu eta ttu eginen ari ziren.	186
txidortu okertu	Ahoa txidortu egin zitzaion berriro eta begiak ere halatsu.	206
txirtxilatu birrindu, triskatu	Paretaren kontra txikitu zen eta benetan diot txirtxilatu zela.	243
txoropito pepelerdoa (gilip.)	Antiojodun txoropitoek gidatzen zituzten...	31
txorrotxori txori mota	... txorrotxoriekin batera zaldi kakak mokokatzera bidaliko haut.	37
ubeldu beltzunea, kolpe baten ondorioa	Ez duk ubeldurik ageri, maitea. Zartaturik ere ez.	128
umegorri mokotia, mukizua, ume mokoa	Oraindik umegorri bat besterik ez nintzen...	10
xalo apala, atsegina	...zure andre zintzo eta xaloa zerriak gobernatzeko ez baduzu erabili...	199
xamalko moxala, zaldi gaztea	Xamalko gainean bilutsik zihoan emakume bat.	18
xarmant liluragarria, zoragarria, ezitia	Rose bezain neska xarmanta ...	23
xedera ehizarako sarea	...Myra xederan harrapaturik ikusteaz.	106
xularme poroa, larru azaleko zulo txoa	Xularme guztietatik ateratzen zaik, motel.	220
zalangatu hankarteratu	Tomek (...) ez zuen gorputz hura " zalangatzerik " lortu.	87
zamari zaldia, mandoa	Zamari madarikatu horrek jo al hau ostikoz?	127
zaplasterko belarrondokoa, txaloa	Zaplasterkoka aterarazi zuen Myrak gelatik.	23
zartada kolpea	...Roseri eskuaz zartadatxo batzuk eman nizkion bizkarrean adore emateko...	164
zelatan ezkutuan begiratu	...leihoren batetik emakumeren baten zelatan ez bazebilen.	13
zentzatu arrazoiak ulertu, arazoitu	Nola nahi duk haiek zentzatzea ez badiek egurra ematen!	43



zerrama makera, zerri emea	Badiagu barruan zerrama batekin jotzen harrapatu duten morroi bat.	35
zezeldu baldarki ahoskatu	Besoak aidean zerabiltzan eta han aritu zen auskalo zer zezelduz ...	150
zimiko zirria, atximurra	Despedida musu pare bat ere emango nion joan zenean, edo zimiko pare bat egin...	245
zinegotzi kontzejala	Udal zinegotziak beste zenbait funtzionarioekin agertu ziren...	28
ziplo momentuan, batbatean	Atake bat eman eta bertan ziplo eror zitekeen.	57
zipoka zirikatzen, akuilatzen	— Ez Lennierekin zipoka hasi.	123
zotal zohia, lur puska karratua	Gako antzeko sudur harekin, haren aurpegiak hondargune batean goldeak erditik ebakitako hiru zotalen antza zeukan.	206
zurikeria koipekeria, lausengua	Ez hasi nirekin zurikeriatan , Nick!	21
zurrunbilo haize nahasia	Hain arin hartu zuen buelta, ze haren gonak zurrunbiloan bildu baitziren.	147